

Imanol Otaegi Mitxelena**Kultura Saileko zuzendaria**

Imanol Otaegi Mitxelena (Errenteria, 1979), Ikus-entzunezkoetan lizentziatua da eta Turismoan diplomaduna, eta 15 urte baino gehiago daramatza kultur alorrean lanean. Nazioarteko eskala duten proiektu handiko kultur proiektuetan eskarmentua du, eta esperientzia zabala diziplina anitzetako kultur proiektuen ekoizpenean. Donostia / San Sebastián 2016 Fundazioan aritu zen hiru urtez atzerrian gauzatu ziren kultur proiektuen sortzaile eta koordinatzaile gisa. Donostia Zinemaldian ere lan egindakoa da, Zabaltegi-Tabakalera sailaren eta Nazioarteko Zine Ikasleen Topaketaren ekoizpen koordinatzaile moduan. Lehenago, ETBrentzat egindako hainbat telesail eta entretenimendu saioen produktore bezala aritu zen, baita hainbat dantza eta antzerki ikuskizunetan ere.